

## Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.

### Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

#### Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko Otsailaren 22an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, aho batez Bozeramaileen Batzordeak:

*“2020ko otsailaren 26an, Lapurtutako Haurrei buruzko Lege Proposamena sinatu eta erregistratu zen Espainiako Estatuan, eta 2020ko ekainaren 23an onartu zen hura aintzat hartzea, ia aho batez Diputatuen Kongresuko talde politiko guztien aldetik. Gaur egun, talde politikoak zuzenketen izapidean ari dira lanean.*

*Lege hau 2017an hasi zen prozesu luze baten emaitza da, Kongresuko taldeei proposamena lehen aldiz aurkeztu zitzaizanean, eta horiek aho batez onartu zuten izapidetza 2018ko azaroaren 20an. Hala ere, prozedura aurreratua egon arren, hauteskunde deialdiak eten egin zuen lehen izapidetze hori.*

*Asko dira Espainiako Estatuan Lapurtutako Haurren gaineko Legearen azken onarpenaren alde hasieratik lan egin duten erakundeak. Coordinadora Estatal de apoyo a la Querella Argentina-CeAqua entitateak bultzatu eta sustatzen du, entitate horren kide den Todos los niños robados son también mis niños elkarteak proposatuta. Legeproposamen hau babesten duten Espainiako Estatuko hainbat tokitako ume txikien lapurretaren biktimen elkarte askoren parte-hartze aktiboa du, hona elkarteak: Adelante Bebés Robados (Madrid eta Gaztela-Mantxako ordezkariak); Asociación Bebés Sustraidos Bizkaia “Itxaropena”; ABEROA Asociación de Bebés Robados de Andalucía; ABRA Asociación de Afectados por Bebés Robados de Andalucía, AVA Asociación de Víctimas de bebés robados y de adopciones ilegales de Alicante; Asociación Orígens de Baleares; Camino a la Justicia; Sevilla bebés robados; SOS Bebés*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 22 de febrero de 2022, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

*“El pasado 26 de febrero de 2020 tuvo lugar la firma y registro de la Proposición de Ley de bebés robados en el Estado Español, y el 23 de junio de 2020 fue aprobada su toma en consideración, prácticamente por unanimidad de todos los Grupos Políticos del Congreso de los Diputados. En la actualidad, los Grupos Políticos trabajan en el trámite de enmiendas.*

*Esta ley es fruto de un largo proceso que comenzó en 2017, cuando se presentó por primera vez la Proposición a los Grupos del Congreso, los cuales aprobaron su tramitación por unanimidad el 20 de noviembre de 2018. Sin embargo, y a pesar del estado avanzado del procedimiento, la convocatoria de elecciones truncó esa primera tramitación.*

*Son muchas las entidades que han trabajado desde el inicio en pos de la aprobación final de la Ley de bebés robados en el Estado Español. La impulsa y promueve la Coordinadora Estatal de apoyo a la Querella Argentina-CeAqua a propuesta de Todos los niños robados son también mis niños, asociación integrante de esta entidad. Cuenta con la participación activa de un gran número de asociaciones de víctimas por el robo de bebés de diferentes partes del Estado español que apoyan esta Proposición de ley: Adelante Bebés Robados (Madrid y delegación de Castilla-La Mancha); Asociación Bebés Sustraidos Bizkaia “Itxaropena”; Asociación de Bebés Robados de Andalucía (ABEROA); Asociación de Afectados por Bebés Robados de Andalucía (ABRA); Asociación de Víctimas de bebés robados y de adopciones ilegales de Alicante (AVA); Asociación Orígens de Baleares; Camino a la Justicia; Sevilla bebés robados; Sos*



*Robados Cádiz; SOS Bebés Robados de Cantabria; Sos Bebés Robados Galicia; SOS Bebés Robados Huelva; SOS Bebés Robados Jerez de la Frontera; SOS Bebés Robados Madrid (Madrid y delegación de Canarias); Todos los niños robados son también mis niños- CeAqua (entitate bultzatzaile gisa).*

*Era berean, Giza Eskubideen aldeko Estatuko zein nazioarteko elkartean bermea du, hala nola, APDHE Espainiako Giza Eskubideen Aldeko Elkartearena, Amnistia Internacional erakundearena eta La Red Argentino Europea por el Derecho a la Identidad —Maiatzeko Plazako Amonen Espainiako ordezkariak—; horiez gain, erakunde memorialista, feminista eta akademiko ugari daude.*

*Espainian ume txikien lapurreta-krimenek duten larritasunean datza proposamen honen garrantzia, 50 urte baino gehiagoko denbora-tartean gertatu baitira eta Estatuko lurralde osoan hedatu baita. Horregatik, lege-proposamen honen helburua da giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen oinarri diren egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta ez errepikatzeko eskubideak bermatzea ume txikien lapurreta-delituaren biktimei, gizateriaren aurkako krimen gisa.*

*Hain zuzen ere, Nazio Batuen hainbat erakundek esku hartu behar izan dute: egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermeak sustatzeko Nazio Batuen Errelatore Berezi Pablo de Greiff; eta Nazio Batuen desagertze behartuei buruzko Lantaldea. Era berean, Europako Parlamentuak interes handia hartu zuen eta Eskaeren Batzordearen Misioa bidali zuen. Horren emaitza 2017ko azaroan argitaratutako 31 gomendio biltzen zituen txosten bat egitea izan zen.*

*Proposamen hori onartzeak ekarriko luke Espainiak bete egingo lituzkeela, azkenean, Nazio Batuen eta Europako Parlamentuaren irizpideak eta gomendioak; izan ere, horrela jarduteko irizpide eta mekanismo homogeneoak ezartzen dira autonomia-erkidego guztietan, eta hainbat instituzio eta erakunde sortu eta koordinatu ahal dira, delitu horiek benetan ikertzeko beharrezkoak diren ikerketen eta prozeduren pisua jasan ahal izateko, horiek diktadura indarrean egon den aldi osoa eta aldi demokratikoaren zati bat hartzen baitute. Lege horren bidez, biktimen eskubideak finkatzen dira, iraganekoak eta oraingoak, jada ez daudenenak eta oraindik ere beren familiarekin berriz elkartu edo beren nortasuna berreskuratu nahi dutenenak.*

*Bebés Robados Cádiz; Sos Bebés Robados de Cantabria; Sos Bebés Robados Galicia; Sos Bebés Robados Huelva; Sos Bebés Robados Jerez de la Frontera; Sos Bebés Robados Madrid (Madrid y delegación de Canarias); Todos los niños robados son también mis niños- CeAqua (como entidad promotora).*

*De igual forma, está avalada por asociaciones tanto estatales como internacionales en defensa de los Derechos Humanos, como lo son la Asociación Pro Derechos Humanos de España (APDHE), Amnistía Internacional y La Red Argentino Europea por el Derecho a la Identidad —representantes de las Abuelas de Plaza de Mayo en España—; a ellas se suman numerosas entidades memorialistas, feministas y académicas.*

*La importancia de esta Proposición reside en la gravedad que alcanzan los crímenes de robo de bebés en España, que se suceden en un espacio temporal de más de 50 años y se extiende por todo el territorio del Estado. Por ello, esta Proposición de Ley tiene como objetivo garantizar los derechos a la verdad, la justicia, la reparación y las garantías de no repetición, pilares del Derecho Internacional de los Derechos Humanos, a las víctimas del delito de robo de bebés como crimen de lesa humanidad.*

*Tanto es así, que son varios los organismos de Naciones Unidas que se han visto compelidos a intervenir: el Relator Especial de Naciones Unidas para la promoción de la verdad, la justicia, la reparación y las garantías de no repetición, Pablo de Greiff; y el Grupo de Trabajo sobre desapariciones forzadas de Naciones Unidas. De igual forma, el Parlamento Europeo tomó un gran interés y envió la Misión de la Comisión de Peticiones, cuyo resultado fue la elaboración de un Informe con 31 recomendaciones, publicado en noviembre de 2017.*

*La aprobación de esta proposición supondría que España cumpliría por fin los criterios y recomendaciones de las Naciones Unidas y el Parlamento Europeo, al establecer criterios y mecanismos homogéneos de actuación en todas las Comunidades Autónomas, crear y coordinar distintas instituciones y organismos que puedan soportar el peso de las investigaciones y procedimientos necesarios para la efectiva investigación de estos delitos, que abarcan toda la dictadura y parte de la democracia. Con esta ley se afianzan los derechos de las víctimas, del pasado y del presente, de las que ya no están y de las que todavía buscan reencontrarse con sus familias o recuperar su identidad. Se garantizan al fin, los*



*Dagoeneko aipatu ditugun egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko eskubideak bermatzen dira, biktimentzat bezain garrantzitsuak direnak, zuzenbideko estatu demokratiko baten funtzionamendurako.*

*derechos que ya hemos mencionado de verdad, justicia, reparación y no repetición, tan importantes para las víctimas como para el funcionamiento de un estado democrático de derecho.*

*2020ko irailaren 17an ireki zen Justizia Batzordean kokatuta dagoen Proposamenaren zuzenketen izapidea. Legea geldirik geratu da izapide horretan.*

*El 17 de septiembre de 2020 se abrió el trámite de enmiendas de la Proposición, que está ubicada en la Comisión de Justicia. La ley se ha quedado parada en este trámite.*

*Ume txikien lapurretaren dramak Espainian eragindako mina dela eta, oraindik jasaten ari dena, erantzun bateratua, komuna eta kolektiboa behar da oraindik, eta, horregatik, Donostiako Udalak honako hau eskatzen dio Diputatuen Kongresuari:*

*Debido al dolor que ha causado el drama del robo de bebés en España y que todavía permanece, es necesaria una respuesta unitaria, común y colectiva, por eso el Ayuntamiento de Donostia – San Sebastián solicita al Congreso de los Diputados:*

*1. Zuzenketen izapidea amaitzea, legeak bere prozesu parlamentarioa jarrai dezan behin betiko eta presaz onetsi arte".*  
=====

*1. La finalización del trámite de enmiendas para que la ley siga su proceso parlamentario hasta la aprobación definitiva y urgente".*  
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko martxoaren 2an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 2 de marzo de 2022.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -  
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**